

**Diseinuko profesionalentzako deialdia,
DUETO Programan parte hartzeko interesa
adierazteko**

1. AURKEZPENA
2. DEIALDIAREN XEDEA
3. NORK PARTE HAR DEZAKE
4. INTERES-ADIERAZPENA ETA DOKUMENTAZIOA AURKEZTEKO MODUA
5. DATU PERTSONALEN BABESA
6. KONFIDENTZIALITASUNA
7. EDUKI ETA BALDINTZEN INTERPRETAZIOA ETA GARAPENA

I. ERANSKINA: INTERESA ADIERAZTEKO FORMULARIOA ETA ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENA

II. ERANSKINA: HIZKUNTZEN EZAGUTZA

1. AURKEZPENA

BILBAO EKINTZA, EPElek (aurrerantzean, "BILBAO EKINTZA") Bilboko hirian aberastasun ekonomiko eta soziala sortzea du helburu, eta, horretarako, inbertsioak egiteko, enpresak sortzeko eta bertan hazteko, bisitariak eta talentua erakartzeko gaitasunak indartzen dihardu.

Ingurumari horretan, BILBAO EKINTZAK Espezializazio Adimenduneko Unitatea dauka Hiri-Garapeneko Sailaren barruan. Sail horrek, lehentasunezko helburuen artean, bereziki hazkunde bidean dauden sektore jakin batzuen alde lan egiten du, espezializazio adimendunaren estrategiaren barruan, besteak beste diseinuaren aldeko apustua eginez.

Horren haritik, ekosistema berritzaileak sortzeko lankidetzak- eta nazioartekotze-estrategia bat behar dela jakinda, 2014tik Bilbo Unescoren Hiri Sortzaileen Sareko kide da, Diseinu kategorian.

DUETO PROGRAMA: *UNESCO Design Cities Exchange Programme*

Bilbao Ekintzak DUETO ekimena jarri du martxan, UNESCOren Diseinu Azpisareko (UCCN) hirietako diseinu-profesionalen eta enpresen arteko lankidetzak eta ezagutza-trukea sustatzeko.

[UCCNren diseinu-azpisarea](#) mundu osoko 48 hirik osatzen dutenez, lankidetzak ziurrenik bitarteko telematikoen bidez egingo da, eta lan-hizkuntza, a priori, ingelesa izango da.

DUETO programa honetan datza: 6 hilabetez, Bilboko diseinuaren arloko profesional batek UCCNren beste Diseinuaren Hiri batean egoitza duen enpresa batekin lan egingo du, diseinuaren metodologiak erabiliz erronka espezifiko bati heltzeko. Era berean, beste hiri horretako diseinuko profesional batek euskal enpresa batekin lan egingo du bere erronka aurrera eramaten.

Dagokion deialdi zehatzean hautatutako diseinuko profesionalak 10.000 euroko konpentsazio ekonomikoa (BEZa barne) jasoko du proiektua garatzeagatik. Zenbateko horren barruan sartzen dira bidaia-gastuak, dietak eta proiektuarekin lotutako beste edozein gastu.

Bilbao Ekintzak laguntza emango dio diseinuaren profesionalari enpresarekiko lankidetzak-prozesu osoan, eta DUETO ekimenaren ikusgarritasuna sustatuko du hedapen-jardueren bidez.

Programaren helburu orokorrak hauek dira:

- Diseinuaren kultura eta diseinu-prozesua sustatzea, enpresa-ehunean balio erantsi gisa.
- Diseinuaren eta enpresaren arteko harremana nabarmenduko duten emaitza ukigarriak eskaintzea.
- Bilboren irudia indartzea, diseinuarekin eta berrikuntzarekin lotuta, eta, ondorioz, diseinuaren sektorearena.

2. DEIALDIAREN XEDEA

Interes-adierazpenen eskaera honen helburua da DUETO programan parte hartzeko interesa izan dezaketen diseinuko profesionalak identifikatzea, UCCNren beste hiri bateko enpresa batek planteatutako erronka bat konpontzen laguntzeko.

Adierazpen horien bidez biltzen den informazioaren helburua da trukea egiten den UCCNren Diseinuaren Hiriari laguntzea, Bilboko profesionalen gaitasun espezifikoak ezagutzera emanez. Horregatik, deialdi honi erantzunez, DUETO programan parte hartzeko interesa adierazten duten diseinuko profesionalen profila eta portfolioa partekatuko dira interesa duten hiriekin, eta, horrela, programaren bideragarritasuna egiaztatuko da.

Erronka zehatza eta trukea zein hirirekin egingo den, aurrerago egingo den deialdi espezifiko batean zehaztuko da. Deialdi hori, a priori, 2026. urtearen hasieran egitea aurreikusten da.

Interes-adierazpenik ez aurkezteak ez du mugatuko aurrerago egingo den deialdi espezifikoan parte hartzeko aukera. Era berean, deialdi honetan parte hartzeak ez dio inolako eskubiderik edo betebeharririk sortzen Bilbao Ekintzari.

3. NORK PARTE HAR DEZAKE

Nortasun juridikoa duen diseinuko edo diseinu-estudioko edozein profesionalak parte hartu ahal izango du ekimen honetan, baldin eta bere jarduera Bilbon egiten badu eta bere zerbitzu profesionala ingelesez egiteko gaitasuna erakusten badu.

Zentzu honetan:

- Diseinuko profesionaltzat hartuko dira Europar Batasunaren lurraldean lanbidean jarduteko legezko ahalmena duten pertsonak, baldin eta diseinuaren eremuan jarduera profesionala egin dutela frogatzen badute:
 - Pertsona fisikoen kasuan, gutxienez 5 urteko esperientzia izan beharko dute antzeko irismena duten proiektuetan.
 - Pertsona juridikoen kasuan, programan parte hartzeko proposatzen diren pertsona guztiek antzeko irismena duten proiektuetan esperientzia izan beharko dute gutxienez 5 urtez.
- Jarduera Bilbon egiten duela ulertuko da helbide soziala edo gutxienez lantoki bat Bilboko udalerrian duela egiaztatzen badu.

Baldintza horiek DUETO programa garatzen den bitartean bete beharko dira.

4. INTERES-ADIERAZPENA ETA DOKUMENTAZIOA AURKEZTEKO MODUA

DUETO programan parte hartzeko interes-adierazpen bat aurkeztu nahi duten pertsona fisiko edo juridikoek I. ERANSKINA (INTERES-ADIERAZPENA ETA ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENA) bete beharko dute oso-osorik, eta nahitaezko dokumentazioarekin batera, helbide elektroniko honetara bidali: sectores@bilbaoekintza.bilbao.eus

Eskaerak aurkezteko epea **2025eko azaroaren 17ra arte** luzatuko da.

Edozein zalantza argitzeko aurkezteko epea amaitu baino astebete lehenagora arte helbide elektroniko honetara idatzi daiteke: sectores@bilbaoekintza.bilbao.eus

Eskabidea aurkeztuz gero, interesdunak oinarri hauetan jasotzen diren betekizunak eta betebeharrak onartzen ditu.

Aurkeztu beharreko dokumentazioa

- I. ERANSKINA: INTERESA ADIERAZTEKO FORMULARIOA ETA ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENA, oso-osorik beteta.
- II. ERANSKINA: Hizkuntzen ezagutza: Pertsona juridikoen kasuan, proiektuan parte har lezaketen diseinuaren arloko profesional bakoitzaren ezagutza zehaztuko da.
- Curriculum vitae (gehienez 3 orrialde). Pertsona juridikoen kasuan, proiektuan parte har lezaketen diseinuaren arloko profesional guztien curriculumak aurkeztuko dira. Parte-hartzaile guztiek esperientziaren baldintza bete beharko dute.
- Lan nabarmenen portfolioa, profesionalak orain arte egindako bost lan, gehienez, bilduko dituen. Dokumentu honen luzera ez da 10 orrialdetik gorakoa izango. Nahi izanez gero, web-orri baterako edo antzeko baterako esteka sartu ahal izango da, proiektu edo azterketa-kasu bakoitza ikusteko.

Curriculum vitae eta lan-portfolioa **ingelesez aurkeztu beharko dira nahitaez.**

Aurreko dokumentazioa PDF motako 4 fitxategitan bidaliko da, aurrez aipatutako helbide elektronikora.

Parte hartzeko proposamena aurkezten duen pertsonak edo pertsonak bere gain hartzen dute erantzukizunpeko adierazpen guztien eta aurkeztutako gainerako agirien egiazkotasunaren gaineko erantzukizun osoa.

Bilbao Ekintzak eskatu ahal izango du intereseko adierazpenean jasotako informazioa zabaltzeko edo argitzeko.

5. DATU PERTSONALEN BABESA

Datuak babesteko indarreko araudiak xedatutakoarekin bat etorriz, Bilbao Ekintza EPELek jakinarazten du deialdi honetako eskarietan jasota dauden datu pertsonalak Bilbao Ekintza EPELek tratatuko dituela (sozietateak Bilboko (48001) Nafarroa kaleko 5. zenbakian dauka helbidea), jasotako hautagaitzak kudeatu eta izapidetzeko helburuz.

Datuak behar den denboran gordeko dira bildu ziren helburua betetzeko, baita helburu horretatik eta datuen tratamendutik erator litezkeen erantzukizunak zehazteko ere.

Tratamendu horien oinarria tratamenduaren arduradun den Bilbao Ekintza EPELi emandako botere publikoak egikaritzea da.

Ez zaizkio datuak beste inori emango, legez derrigorrezkoa bada izan ezean. Ez da datuen nazioarteko igorpenik egingo.

Hauexek dira interesdunen eskubideak:

1. Datuak eskuratzeko, zuzentzeko, ezabatzeko eta mugatzeko edo tratamenduaren aurka agertzeko eskubidea, tratamenduaren arduradunaren helbidera idatzi bat bidaliz, nortasuna aldeztu aurretik egiaztatuta.

2. Datuak Babesteko Espainiako Agentzian erreklamatzeko eskubidea

BILBAO EKINTZA EPELek egiten dituen datu pertsonalen tratamenduei buruzko informazio gehiago eskuratzeko, datos@bilbao.eus helbidera idatz daiteke datuen tratamenduaren gaineko informazio gehiago eske.

6. KONFIDENTZIALITASUNA

Deialdi honen esparruan sortutako informazioa ez da tratatuko bere eremuari dagokiona ez den beste ezertarako, eta biltzen dituzten datu pertsonalen zein enpresakoen konfidentzialtasuna bermatuko da, honako baldintza hauetan publizitatearen arloan jasotzen diren ahalmenak ezertan eragotzi barik.

7. EDUKI ETA BALDINTZEN INTERPRETAZIOA ETA GARAPENA

Bilbao Ekintzak deialdi honetako baldintzak interpretatzeko eskubidea izango du, zalantzarik sortzen duen edozein egoera dela-eta; halakoetan, behin betiko erabakiak hartuko ditu.